

# BERRIZTARRA

2010eko urria



## GELDI EGOTEKO AITZAKIA BARIK

**P**ilotan, bizikletan, futbolean, eskalatzan, mantenuko gimnasia zein igeriketan; Berrizen kirola egiteko aukera asko dago. Aurrez aipatutakoak adibide batzuk bakarrik dira. Berrizuburu kiroldegian aurkitu daitekeen eskaintzari, aire librean dauden kirol azpiegiturak gehituta, aitzakia gutxi daukate berriztarrek geldi egoteko.

# udal **b**erri erabakiak

## ● Ohiko bilkura: uztailak 14 Julio

\* A. Zumalabe eta P. Perez falta.

### Onartutakoak

- Gizarte zerbitzuek emandako bana-kako prestazio ekonomikoen udal araudia. 8 aldeko botu: 5 (EAJ) eta Karmen Amezua, Aizpea Macarro eta Gorka Carmara. Abstentzioa: 1 (PSE).

- Ur, zaborra, estolderia eta isurketa tasarako diru-laguntzei buruzko udal araudia. 8 aldeko botu: 5 (EAJ) eta Karmen Amezua, Aizpea Macarro eta Gorka Carmara. Abstentzioa: 1 (PSE).

- Berrizko hiltegi berriko instalazioe-tako sarbide sistema orokorra egikari-tzeko beharrezko lursailak eskuratzeko nahitanahiezko desjabetze-espiente-ari hasiera ematea. 8 aldeko botu: 5 (EAJ) eta Karmen Amezua, Aizpea Ma-carro eta Gorka Carmara. Abstentzioa: 1 (PSE).

## ● Ez-ohiko bilkura: uztailak 24 Julio

\* Pili Sanz falta.

### Onartutakoa

- 2009ko ekitaldiaren aurrekontuaren kontu orokorra. Aho batez.


## ● Ohiko bilkura: irailak 8 Septiembre

- Uztaileko eta abuztuko alkatetza de-kretuen berri eman zen

**Hurrengo batzarra:**  
Azaroak 10, noviembre,  
arratsaldeko, 19:00etan.

**La prestación económica** regulada en la or-denanza aprobada, pretende ser un re-curso para todas aquellas personas y fa-milias que carecen de medios econó-micos para hacer frente a los gas-tos específicos, de carácter ordi-nario o extraordinario, necesarios

para prevenir o paliar situaciones de marginación o exclusión social, una vez pro-bado que no pueden ser perceptoras de Ayudas de Emergencia Social. Con el mismo objetivo se ha aprobado la ordenanza muncipal sobre prestación económica para tasa de agua, basura, alcantarillado y vertido. Así, con esta normativa se regula las aportaciones que desde el Ayuntamiento de Berriz se destinan con este objetivo.



## AYUDAS ECONOMICAS Para quien quede fuera de las AES

## HILTEGIRA SARBIDEA Hiru desjabetze egin dira

Berrizen **eraikitze**ko diren **Erralde hiltegirako**, Ametzualdean **sarbide sistema** orokorra atonduko dute. Horretarako, inguruan dauden lursail batzuk eskuratzeko nahitaezko izan da. Desjabetze-espienteak egin dira helburu horrekin. Hiru lursail-tako jabeek eragin izan die desjabet-zeak. Berrizko Udalak horietako birekin zuzenean hitzegin eta adostu du desjabetzea. Hirugarren lurjabea-rekin bat egiteko ahaleginak bi urtez luzatu dira eta arrakastarik ez dela izan ikusita, nahitaezko desjabetze-espienteari hasiera ematea onartu da.



## KONTU OROKORRA Aho batz onartu du udal taldeak

maila jasotzen duten dokumentua da. Udalbatzak aho batez onartu du.

Legez udal guztiek **bete beharreko tramitea** da. Onartutako aurre-kontuaren **betetze-**

**BAI UDAL BILTZARI !  
EUSKAL HERRIARI !**





# BERRIZ 1936 GOGORATZEN KULTUR ELKARTEA ETA IRAILAK 11

Herriko historia ezagutzeko lanean dihardu 30 laguneko taldeak

**Irailaren 11n, gerra garaian Berrizen gertatutakoak gogoratzen dira. Gerediaga Elkarteak eta Udalak hasitako bideari, Berriz 1936 Gogoratzen Elkarteak orain dela lau urtetik jarraitu dio.**

Testigantzak jaso, artxiboetan bilatu, jende nagusiari galdetu... ikusten ez den lan asko egiten dute. Gero, urteko emaitza irailaren 11n antolatzen diren ekitaldietan erakusteko. Elkartean 30-40 laguneko taldea dabil lanean. Taldearen helburua Berrizko historia eta kultur ondarea ikertu eta ezagutzera ematea da. Talde zabala da, baina jende gehiagoren laguntza beharrezkoa dutela diote leku gehiagotara heldu ahal izateko. Hala ere, lekukotzak gutxitzen zihozela ikusita hasierako urteetako esfortzua gerra sasoiko eta frankismoko gertaerak ikertzeko erabili dute. Eta astiro-astiro, ezkutuko istorio txiki asko azaleratu dituzte.



Azken urteko lanaren ondorioz, dokumentu berriak aurkitu dituzte. Horien artean, Juan Manuel Oruemazaga berriztarrak urte askotan Ondarroan, etxean, gordeta izan dituen paperak. Haren semeak, Imanol Oruemazagak, Berrizko herriari doantzan eman zizkion Kultur Etxean egindako ekitaldian.

Juan Manuel Oruemazaga gerra aurretik eta gerra garaian ere, herriko zinegotzia izan zen. 1936ko azaroan, teniente alkate izendatu zuten, Felix Ariznabarretak alkatetza kargua hartu zuen egunean. Diru kontuak eraman zituen eta abastos-eko delegatua zen. Gordetako dokumentuetan ikusi daiteke gerra denborako herri antolaketa nolakoa zen.

Nazionalak sartu zirenean, udaletxeko liburu akta eta beharrezko ziren paper eta zigiluak hartu eta Bilbora alde egin zuen Felix Ariznabarreta eta Serafin Amezuarekin. Bilbo erori arte berriztarrak han izan zuten udala, Bilboko Erzila Kalean. Juan Manuel Bilbon atxilotu zuten 37ko ekainean. Bizkaian egin ziren lehenengo epaiketetako bat izan zen berea eta kondena luzearekin Burgosera eraman zuten.

## ZERGATIK IRAILAK 11?

1937ko irailaren 11n Jose Agirre eta Felipe Urriaga fusilatu zituzten. Hala ere ez ziren bakarrak izan. Hilabete lehenago, esaterako, Gregorio Urkijo fusilatu zuten. Fusilatuak, erbesteratuak, kartzelara eramandakoak, desagertutakoak,... gerrak biktima mota asko izan ditu eta guztiei gorazarrea eskaintzen zaie. Berriz 1936 Gogoratzen Elkarteak beste asmo bat ere badu. Berrizen zer gertatu zen ikertu eta aurkitutako dokumentuak familiakoen eskuetan jartzea.

## Recuperando papeles

Durante cuatro años la asociación Berriz 1936 Gogoratzen trabaja para recuperar y dar a conocer la historia del municipio. Su labor se ha centrado sobre todo en la época de la guerra y el franquismo, debido sobre todo a la escasez de testimonios en vivo. Pero no descartan investigar otras épocas y otros aspectos históricos de Berriz. Todos los 11 de septiembre recuerdan y dan a conocer los frutos de las investigaciones realizadas. Este año destaca la documentación que la familia Oruemazaga ha donado al Ayuntamiento de Berriz. Juan Manuel Oruemaza fue concejal antes y durante la guerra. También ocupó el cargo de teniente alcalde con Felix Ariznabarreta. Se encargaba de la contabilidad y era el delegado-encargado de "beneficiencia y abastos". Gracias a la documentación que ha tenido guardada en su casa de Ondarroa, se puede conocer el día a día de la organización municipal en tiempos de guerra.

# AURTEN ERE PARTE-HARTZEA NABARMENA

Berrizko Jai Batzordeak irailaren erdialdera egin du jaietako errepaso eta balorazioa. Aurreko urteetako jarraipena izan da aurtengoa ere. Hilabeteetan hogeitau lagun inguruko taldeak prestatu dituen ekitaldi guztiak ondo ateratzen dira. Berriztarrei jai egiteko gogoia igarri zaie.

Aurtengoa ere, berriztar asko izan da ekitaldietan parte hartzen. Jai batzordetik, batez ere, jaietan jai egitea baloratu dute gehien. Orain, hurrengo jaietara begira hasita daude batzuk. Gabon jaietako ekitaldiak eta ostean urtarreko San Antonio jaiak izango dira. Prestakizunetan laguntzeko prest dagoen edozeinentzat atek zabalik ditu jai batzordeak. Kultur Etxean informazioa.

## Destaca la participación

La Comisión de Fiestas de Berriz ha elaborado su particular repaso y valoración de fiestas a mediados de septiembre. Las fiestas de este año han sido una continuación de lo que vienen siendo en años anteriores. Las actividades que durante meses han organizado con mimo alrededor de veinte personas han salido bien, los y las berriztarras demostraban las ganas de fiesta.

Este año también se ha animado la gente a participar. Lo que más ha valorado la comisión de fiestas han sido las ganas de disfrutar las fiestas. Ahora, ya miran a las siguientes fiestas, que serán las actividades navideñas y las fiestas de San Antonio a mediados de enero. Cualquier persona que quiera participar y ayudar en los preparativos tiene las puertas abiertas en la comisión de fiestas. Información en la Casa de Cultura



# LABURREAN

## EUSKAL MITOLOGIA ETA KONDAIRAN MURGILDUTA



Uztaileko goizak Learreta-Markina ikastetxea beteta egon da. Ez eskolak egon direlako. Udalak antolatzen dituen udaleku irekietan 150 gaztetxo inguruk parte hartu nahi izan dutelako. Aurten ere, bai txikitxoek eta gaztetxoek euskal mitologia eta kondairan murgildu dira, jolas, tailer eta irteera diferenteetan parte hartuta. Nagusienak, gainera, Gorlizko hondartzan abenturazko ekintzak egin dituzte.

## MENDIAK FRONTOIKO HORMAN

Berrizburun dago. Udalak antolatu duen aire libreko lehen mural lehiaketa irabazi du "Euskal Herriko Mendiak" izeneko lanak. Egilea Durangoko Aratz Azpiri izan da. Berrizburun dagoen frontoietako baten horman egin du graffitia eta atzeko mendiekin bat egitea lortu du.



## EXITOSO CURSO DE COMPOSTAJE

Por primera vez se ha organizado un curso teórico-práctico de compostaje en el que han participado 36 personas. Un curso corto de dos días en el que han podido ver como se elabora el compost en el mismo jardín del Ayuntamiento. Visto el éxito de la convocatoria y sobre todo para dar una respuesta a personas que han quedado en lista de espera, se organizará un segundo curso. Pero todavía no hay fecha concreta.



## Kirola egiteko aukera



# 886 abonatu ditu Berrizburu kiroldegiak

**Berrizen kirola egin nahi duenak aukera faltarik ez dauka. Batetik, federatu modura herrian dauden taldeak eta praktikatu daitezkeen kirolak. Bestetik, Berrizburu kiroldegiak eskaintzen dituen ikastaro eta instalazioak. Eta aukeran, aire librean dauden kirol instalazioak ere nabarmendu daitezke. Beraz, kirola egin nahi duenak badauka non aukeratu.**

Pilotalekua, belodromoa, kirol anitzetarako barruko zein kanpoko zelai eta aretoak, bolatokia, igerilekuak, futbol zelaiak, rokodromoa, skate pista, oinezkoen bidezidorak, BTT ibilbideak eta probalekua. Horrek egun Berrizen dauden kirolerako aukerak. Udalak, bestetik, herri-kirol gunea egiteko proiektua dauka eskuartean. Berrizburun, orain gutxira arte Garbikerrek kudeatu duen zaborteia egon den lekuan, atonduko dute azpiegitura berria. Herri-kirol gunearekin batera, umeentzat parkea, aire libreko frontoi bi, probalekua, pasealekua eta mantenuko ariketak egiteko hirugarren adinekoentzat makinak ere jarriko dituzte. Proiektua bera, zabortejiaren behin betiko zigitlatzearen zain dago.

Berrizburu kiroldegian, berriz, urte osoan zehar kirola egiteko aukera zabala dago. Igerilekua eta gimnasioko ikastaroek erakartzen

dute jende gehien. Igeriketa ikastaroak mailakatuta eskaintzen dira aste osoan zehar, hasi txikienetatik eta helduenetara eskainiz. Gainera, azken urteetan uretako gimnasia ikastaroak ere eman dira. Gimnasioan, berriz, cycling edota pilates ikastaroek dute arrakasta gehien. Horrez gain, aerobic, step, kaloriak erretzeko saioak eta mantenu gimnasia ere eskaintzen dira. Ikasturte berriko ikastaroetara 335 lagunek eman dute izena.

Urte osoan karneta ateratzen duenak, igerilekua ezezik muskulazio gela ere erabili dezake. Arineketan egiteko zintak eta makina eliptiko berriak ekarri dira. Erabiltzaileen eskariei kasu eginez, ia urte osoan zabalik dago. Abuztuko 15 egunetako etena eta Gabon zein Urteberri egunak bakarrik zarratzen ditu ateak Berrizburu kiroldegiak.

**886 abonados en el polideportivo Berrizburu.** Berriz cuenta con múltiples posibilidades para practicar deporte. Tanto en instalaciones cubiertas como descubiertas o participando en los diferentes cursos que se ofrecen en el polideportivo Berrizburu. Las instalaciones son variadas: frontones, piscinas, campo de fútbol, velódromo, pista de skate, rocódromo, pistas multiactividad o recorridos en BTT como pequeños recorridos. Ahora, el ayuntamiento, tiene proyectado acondicionar en el vertedero de inertes ya clausurado un parque de deportes vascos, en el que también habrá un espacio de juegos para niños y niñas y máquinas de ejercicio para personas mayores.

Desde el polideportivo Berrizburu también se ofrece un amplio abanico de actividades. Las más demandadas son los cursos de natación, seguido de las salas de musculación y cycling. Desde 2008, el abono anual da opción de utilizar estas salas siempre que estén libres. En octubre han empezado los nuevos cursos trimestrales a los que se han apuntado 335 personas.



## ● Abonu prezioak / Precios de abonos

Abonuarekin igerilekua eta libre dagoenean muskulazio eta cycling gelak erabili daitezke.

*Con el abono de las piscinas se puede utilizar tanto la sala de musculación como de cycling siempre que estén libres.*

### Urteko abonua erroldatuentzat / abano anual para empadronados-as:

- Familia – 138,34€
- 18 urtetik gora – 76,94€
- 18 urtetik behera – 56,71€

### Urteko abonua ez erroldatuentzat / abono anual para no empadronados-as

- Familia – 180,20€
- 18 urtetik gora – 100,10€
- 18 urtetik behera – 73,80€

### Beste prezio batzuk

- Igerileku sarrera (18 urtetik gora) – 4,04€
- Igerileku sarrera (18 urtetik behera) – 2,02€

### Berrizko kirol taldeak / Grupos deportivos en activo

- Berriz Bizikletari Elkarte
- Amaraune Mendi Elkarte
- Berrizko Oizpe Kirol Pilota Taldea
- Club Deportivo Berriz (Futbola)
- Club Karate Berriz
- Parrilleruek Skate Aisialdi Taldea
- Presion Break (Aretoko futbola)

## elkarrizketa

Saioa Elvira



**Saioa Elvirak 10 urte daramatza Berrizburu kiroldegian lanean. Bere lana harreran egotea eta erabiltzailei ikastaroen eta instalazioen gaineko informazioa ematea da. 2007. urtean egin zituzten berrizatze lanek erantzuna izan dutela uste du.**

*Saioa lleva 10 años atendiendo en la cabina de información del polideportivo de Berriz. A principio de cada curso y trimestre la afluencia de público se nota y afirma que ultimamente la sala de musculación atrae a mucha gente. Entre los servicios más valorados, comenta que la apertura en días festivos y puentes ha tenido buena respuesta de los y las usuarias.*

### Zer da gehien galdetzen dizutena?

Ikasturte edo hiru hilabetekoaren hasieran ikastaroei buruzko informazioa eskatzen dute. Gero, tarteka urteko bazkide txartela edo abonua ere kudeatzen ditugu.

### Zer erabiltzen da gehien?

Igerilekuko ikastaroek erantzun ona izaten dute. Umeen ikastaroak bete egiten dira. Igeriketa ikastaroetan, adibidez, gutxienez kopurua ezeze gehieneko ere zaintzen da, ikasle bakoitzarengana arreta ziurtatzeko. Irailean, bestetik, ikastaro gehienak betetzen dira. Eta aspaldian muskulazio gelara jende asko dator.

### Zergatik hori?

2008tik igerilekuko urteko txartelarekin batera, muskulazio gela nahi beste erabiltzeko aukera dago. Gainera, makina berriak ere ekarri ditugu. Arineketan egiteko zintetan eta makina eliptikoetan beti dago norbait. Horrek dira gehien erabiltzen direnak.

### Jendea zertaz kezkatzen da? Zer eskertzen du?

Batzuk igerilekuko uraren temperatura hotzegia dela. Baina guk araudia baino ez dugu betetzen. Eta eskertu, jai egunetan zabaltea. Urtean bizpahiru egun kenduta, beste jai egun eta zubietan zabalik dago 10:00etatik 14:00etara. Hori asko eskertu dute berriztarrek

# ALBISTEAK

## Actividades específicas para personas mayores

El 1 de octubre fue el Día Internacional de las Personas Mayores. Con tal motivo desde los servicios sociales del Ayuntamiento se ha elaborado el siguiente comunicado y adelanta el programa previsto para el colectivo de personas mayores:

- 26, 27 y 28 de octubre: Taller de Historia "La vida en el País Vasco durante la Edad Media" (Hogar del jubilado/a -17:00 h).

- 30 de octubre: Excursión y visita guiada a Laguardia Ciclo de conferencias "Los recursos sociales para la dependencia" (Miércoles - 18:00h en la Casa de Cultura)

- Noviembre: Visita al Museo Guggenheim (Bilbo)



La esperanza de vida se ha incrementado en la CAPV considerablemente en los últimos años, alcanzando 84,3 años en el caso de la mujer y 77,2 en el de los hombres (Datos Eustat 2005-2006). Con frecuencia se plantea el progresivo envejecimiento de la población con una visión negativa de este fenómeno: necesidad de recursos, problemas que genera la dependencia, costes de las pensiones, gasto social... Efectivamente algunas personas de edad (aproximadamente un 13% en la CAPV, y un 12% en Bizkaia) necesitan cuidados y atención especializada, pero las personas mayores son en su mayoría autónomas (87-88%), viven en su domicilio, participan activamente en distintos ámbitos sociales, con frecuencia prestan ayuda a otros miembros de la familia (cuidado de nietos/as, de otras personas mayores...) y en muchos casos, con su experiencia y voluntad, son también el soporte y nexos de unión de todos los miembros de la familia.

El ser humano siempre ha querido vivir muchos años y sobre todo siempre ha querido vivir en condiciones óptimas esta etapa, por lo que alcanzar edades avanzadas con la calidad de vida que estamos viviendo, debería ser considerado más bien un importante logro social y un reto al que debemos adaptarnos dando respuestas adecuadas, porque todos/as, antes o después seremos personas mayores. Para continuar fomentando la calidad de vida de las personas mayores resulta imprescindible que todos/as, y en especial las administraciones públicas, seamos conscientes de la necesidad de trabajar en el desarrollo de los principios de envejecimiento activo y de modificar progresivamente los estereotipos negativos sobre la vejez y las personas mayores con el doble fin de promover una imagen positiva y real sobre la vejez.

Testo remitido por Sasoia con motivo del Día Internacional de las Personas Mayores

## Herriko leku-izenak zehazteko erakusketa

Udala herriko toponimia batzeko lanean dabil. Orain dela bi urte ekin zion proiektuari, baina azken urtebetean hasi da emaitzak jasotzen. Euskaltzaindiaren tutoretzarekin, bekadun bi ibili dira landa-lana egiten, jendeari galdezka, artxiboetan kontsultatzen eta gaur egun nola erabiltzen diren jasotzen. Asmoa Berrizko leku-izenak zehaztea da. Auzo, mendi, erreka, leku eta baserrien izenak bildu dira.

Herriko mapa handien gainean, bildutako izen guztiak ipini eta azaroaren 13an Berrizko Kultur Etxean erakusketa zabalduko da. Honen helburua, ikerketan lagundu zein ez, berriztarrekin leku-izenak kontrastatzea da. Erakusketan azaltzen den lana behin behinekoa da. Lan hori berriztarrek egin ditzaketek ekarpenik osotzeko asmoa dago. Udalak herriko toponimiari buruzko ikerketa argitaratzeko asmoa dauka edozeinen kontsultarako. Horrez gain, egindako lana ezagutzera emateko ekimen didaktikoak ere burutuko dira.





## Gazteek euren talentua erakusteko aukera daukate



"Izarren Distira" izena daukan lehiaketa parte hartuko du Berriz. Horretarako, azaroaren 5ean, gazte berriztarrentzat kastina egingo da. Bakarka zein taldean, 12 eta 18 urte arteko gazteek, euren talentua erakutsi ahal izango dute dakitena eginez. Bi minututik hamar minutu arteko ikuskizunak izan behar dute. Dantza koreografiak, malabare ikuskizunak, abestea, akrobaziak egitea, ... mota guztietako ikuskizunek dute lekua kastingean. Durangaldean, Berrizekin batera Durangon eta Elorrion ere egingo dira kastingak. Gero, azken gala azaroaren 13an egingo da Durangoko San Agustin Kulturgunean.

### GAZTELEKUA BERRIRO ZABALIK

Berrizko gaztelekua 2008. urtetik zabalik dago. 12 eta 16 urte arteko gazteei elkarrekin egoteko lekua zein euren asti librean ekin-tzetan parte hartzeko modua dute. Trenbide ondoko etxetxoan (aintzina kultur etxea zenekoa) dago gaztelekua. Ibilbide berriari Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen eskutik ekin dio. Eurak izango dira gaztelekua

kudeatu eta dinamizatuko dutenak.

Gaztelekuko ordutegia zera izango da; Barikutan 16:30etik 20:30era eta Zapatu eta Domeketan 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era. 12 eta 16 urte bitartekoei zuzendutako ekimena da eta 3 hezi-tzailez osatutako lan taldeak koordinatuko du.

Surf ikastaroa, "altxorren bila" lehiaketa eta zirko tailer bat dira ibilbide berri honetako lehen ekintzak. Aurrera begira, egitaraua sendotzeko asmoa dute gazteen ekarpenekin. Bestetik, Txatxilipiurdik Zaldibarko Gaztelekuaren ardura ere baduenez, elkarlanean gazteleku biek ekintza gehiago egiteko aukera izango dute.

### ESKOLA AGENDA

Institutuko gaztetxoekin batera, udalak, eskolako guraso elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak argazkiko eskola agenda banatu da beste urtebetez gaztetxoen artean.

## ZABOR BILKETA ZERBITZUA

### TAMAINA HANDIKOA



Altzariak, etxetresna elektrikoak, liburuak, arropa, jostailuak eta abar baztertu nahi badituzu, aldeztu aurretik Rezikleta S. Coop. 902.540.154 telefonora deituz, batuko dira. Oraindik erabili daitezkeen objektuak etxean bertan batuko dira, aurretik eguna eta ordua zehaztuz. Hondatuta edo apurtuta dauden objektuak kalean jasoko dira, aurretik telefonoz abisatuz. Zaborren edukiontzien ondoan jarriko dira, hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren egunetan, goizeko 8ak baino lehen.

### KULTUR ETXEAN ORDU ALDAKETA

Ostiraletan, umeentzako ekitaldiek ordu-tegi berria dute: 18:00etan.

Heldueri zuzendutako ikuskizunek, berriz, eguna eta ordua aldatu dute: larunbatetan, iluntzeko 20:00etan.

### BANCO DEL TIEMPO

Se trata de un lugar de encuentro de personas dispuestas intercambiar tareas, según sus habilidades, con idéntico coste en forma de tiempo. Se ofrecen servicios y conocimientos, para recibir cuando se necesite otros servicios.

17:30-19:30 Todos los jueves

Tel.: 619 623 885

Lugar de encuentro: Antiguo Ambulatorio



# IKASTAROAK

**Hona hemen Berrizen gaur egun eskaintzen diren ikastaroen laburpena. Guztiak hasita daude. Baina eurretako bat intereseko izan ezkerro, jo bakoitzari dagokion sailera eta eman izena.**


He aquí un resumen de los cursillos que se imparten en Berriz. A pesar de que todos ellos ya han iniciado el curso, si les interesa participar en alguno de ellos pueden inscribirse y solicitar información en los diferentes departamentos del ayuntamiento.

## Kultur Etxean Casa de Cultura

### ARETOKOKO DANTZAK / BAILES DE SALON

Saioak martitzenetik eguenera bitartean ematen dira. Maila diferenteak daude: hasierakoa maila zein aurreratua.

*Las sesiones se reparten entre martes y jueves. Se ofrecen cursos de diferentes niveles: desde iniciación hasta avanzado*



### SALSA

Bariku arratsaldetan ematen duten ikastaroa. Bi maila: hasierako eta aurreratua. Ordu t'erdiko saioak dira, arratsaldetako 17:00etan hasita.

*Curso que se imparte los viernes a la tarde. Dos niveles: iniciación y avanzado. Sesiones de hora y media a partir de las 17:00 horas.*

### SABEL DANTZA / DANZA DEL VIENTRE

Eguazten arratsaldetan ematen duten ikastaroa. Aukeran bi ordugegi: 18:15ean eta 19:30ean.

*Curso que se imparte los miércoles a la tarde con dos horarios: a las 18:15 horas o 19:30 horas*

### ZERAMIKA IKASTAROA / CURSO DE CERAMICA

Astean egun bat eta bi orduko saioa izaten da. Martitzen eta eguenera eskaintzen dute. Helduentzako ikastaroa da eta maila bi daude: hasierakoa eta bitartekoa.

*Una sesión de dos horas semanal. El curso se imparte martes y jueves. Es un curso para mayores y hay dos niveles: iniciación e intermedio.*



## Kiroldegia Polideportivo

### IGERIKETA / NATACIÓN



Astelehenetik eguenera maila ezberdinetako ikastaroak, goiz eta arratsalde. 4 urteko umeetatik hasi eta nagusienera zuzendutako saioak. Hutsetik hasita ikastaroak edota uretako gimnasia saioak.

*De lunes a jueves cursos de diferentes niveles, mañana y tarde. A partir de 4 años sesiones para todas las edades y todos los niveles, junto con un curso de gimnasia acuática.*

### MANTENU GIMNASIA / GIMNASIA MANTEMIMIENTO

Martitzen eta eguenera goizetan 50 minutuko saioak. Nagusiei zuzendutako saio berezia dago.

*Martes y jueves por la mañana, sesiones de 50 minutos. Se ofrece una sesión específica para personas mayores*

### GIMNASIA LASAIA / GIMNASIA RELAJADA

Astelehen eta eguazten arratsaldetan. 50 eta 65 urte arteko pertsonari zuzenduta, batez ere luzaketa eta erlaxazio ariketak.

*Lunes y miércoles a la tarde. Dirigido a personas de 50 a 65 años, para la práctica de ejercicios de estiramiento y relajación.*

### PILATES / PILATES

Talde bi arratsaldetan: astelehen-eguaztenguean eta martitzen-egueguetan.

*Dos grupos de tarde: lunes-miércoles y martes-jueves.*

### KALORIAK ERRETZEA / QUEMA-CALORÍAS

Talde bakarria astelehen-eguazten arratsaldetan.

Único grupo lunes-miércoles tarde.

### AEROBIC-STEP

Bi ariketak lantzeko taldea. Martitzen-eguen iluntzean talde bakarria.

*Grupo para la práctica de los dos ejercicios. Un único grupo los martes-jueves a la tarde.*

### FIT INTEGRALA / INTEGRAL FIT

Martitzen-eguenetan, arratsalde, fitness ariketak tartekatzen dira.

*Martes-jueves a la tarde, se entremezclan diferentes ejercicios y modalidades de fitness.*

## Jabekuntza ikastaroak / Cursos empoderamiento

### ZORU PELBIKOA INDARTZEKO SAIOAK / REFORZAMIENTO DEL SUELO PÉLVICO

Azaroaren 15era arte egingo da ikastaroa. Astelehenetan ordu eta erdiko saioa.

*Este curso se ofrece hasta el 15 de noviembre. Los lunes sesiones de hora y media*

### GIZARTERATZEA ETA EMAKUMEEN GANAKO INDARKERIA / SOCIALIZACIÓN Y VIOLENCIA DE GENERO

Bi ikastaro izango dira. Azarora bitartean zineforum bidez eta azarotik aurrera antzerki tailer berezia. Barikuetan arratsaldetako 16:15etan.

*Dos cursos: cine-forum hasta noviembre y taller de teatro a partir de noviembre. Los viernes a las 16:15 horas.*



## SEXUALITATE TAILERRA / TALLER SEXUALIDAD

Neska nerabeentzat, 3. eta 4. DBH mailakoak. Azaroaren 12ra bitartean, barikuro ordu biko saioa.

*Para chicas adolescentes, de 3º y 4º de ESO. Hasta el 12 de noviembre, todos los viernes sesiones de 2 horas.*

## EMAKUMEEN LAN FORMAKUNTZA / FORMACIÓN LABORAL PARA MUJERES

23-45 urtet arteko emakume langabetuei zuzenduta. Ohituraz gizonezkoen ofiziotzat hartzen diren lanetan trebatzeko. Otsailera bitartean, egunero goizetan 3 ordu.

*Dirigido a mujeres desempleadas entre 23 y 45 años. Formación en oficios que tradicionalmente han sido ocupados por hombres. Hasta febrero, curso diario por la mañanas de 3 horas.*

## Gizarte-zerbitzuak Servicios sociales

### GURASO-ESKOLAK / TALLERES PARA PADRES Y MADRES



Learreta-Markina ikastetxean, arratsaldeko 17:00etan.

Haur Hezkuntzan, "Arrakasta handiko estrategiak umeeekin hitzegiteko". Azaroak 3.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, "Teknologia berriak". Azaroak 10roak 10.

Lehen Hezkuntza (6-12 urte) eta Bigarren Hezkuntza (13-15 urte): "Teknologia berriak"

*A partir de las 17:00 horas en Learreta-Markina.*

*Educación Primaria, "Estrategias de éxito para hablar con los niños y niñas". 3 de noviembre.*

*Educación Infantil y Educación Secundaria, "Nuevas tecnologías". 10 de noviembre*

### HISTORIA TAILERRA / TALLER DE HISTORIA

Hiru egunetako tailerra (urriak 26-28) Nagusien Etxean: "Erdia Aroan bizitza Euskal Herrian"

*Taller de tres días (octubre 26-28) en el Hogar del Jubilado: "La vida en el País Vasco durante la Edad Media"*

## "MENPEKOTASUNA" HITZALDI ZIKLOA / CICLO DE CONFERENCIAS "DEPENDENCIA"

Menpekotasunen bat dutenei eta euren zaintzaile zein familiartekoei zuzenduta, dauden zerbitzuei berri emateko hitzaldiak. Eguazteneko arratsaldetan, Kultur Etxean.

*Dirigido a personas con alguna dependencia y a las personas cuidadoras y familiares. Conferencias sobre los recursos sociales existentes. Todos los miércoles en la Casa de Cultura.*

## Euskara

### AISA PROGRAMA ETORKINENTZAT / PROGRAMA AISA PARA INMIGRANTES

Astean birritan arratsaldean eskaintzen den ikastaroa, etorkinentzat bereziki prestatutako ikastaroa.

*Dos veces a la semana y en horario de tarde, curso especial para inmigrantes.*

### EUSKALTEGIA

Maila diferenteetako ikastaroak, hirugarren hizkuntza eskakizuna ateratzeko ikastaroa eta autoikaskuntza.

*Diferentes niveles y cursos, preparación de perfiles lingüísticos y autoaprendizaje*

### ERREFORTZU IKASTAROK / CLASES DE REFUERZO

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta, euskaraz ikasteko zailtasunak dituztenei errefortzuz klaseak.

Dirigido a alumnos y alumnas de Primaria, clases de refuerzo para aquellos que tienen dificultad con el euskara.

### BERBALAGUN

Azaroan hasiko da ikasturtea. Mintza-praktirako lagun taldeak. Izena ematea udaletxean egin daiteke.



*Comienza el curso en noviembre. Grupos para mejorar el idioma hablado. Inscripciones en el ayuntamiento.*

## Gure Izarrak Emakumeen Taldea / Gure Izarrak Asociación de Mujeres

### ETORKINENTZAT GAZTELERA TAILERRA / TALLER HABLA HISPANA PARA INMIGRANTES

Astelehen-eguztenetan arratsaldean 2 or-

duko saioak. Anbulategi Zaharrean.

*Lunes-miércoles tarde, sesiones de 2 horas, en el antiguo Ambulatorio.*

### ESKULANAK / LABORES ARTESANALES


Martitzenero arratsaldean bi ordu Anbulategi zaharrean.

*Todos los martes dos horas en el antiguo Ambulatorio.*

### EGUR TAILA ETA BERZIKLAPENA / TALLA DE MADERA Y RECICLAJE

Bi ikastaro hauek eguzten arratsaldean dira, Anbulategi zaharrean.

*Estos dos cursos se imparten los miércoles a la tarde en el antiguo Ambulatorio.*



### YOGA

Martitzen-eguna ordubete saioak Kultur Etxean.

Martes-jueves sesiones de una hora en la Casa de Cultura

### IRAKURKETA TAILERRA / TALLER DE LECTURA

Hilean behin egiten dute, baina eguna aldatu egiten da.

*Una vez al mes, pero varía el día del taller.*

### BARRETERAPIA / RISOTERAPIA

Hileko azken bariku arratsaldetan Berrizburu kiroldegian.

*Último viernes de cada mes, a la tarde, en el polideportivo Berrizburu.*

## Iremiñe dantza taldea

### EUSKAL DANTZAK / BAILES TRADICIONALES VASCOS

Astelehen-bariku, arratsaldean Iremiñe dantza taldearen lokalean

*Lunes-viernes, tarde, en el local del grupo de bailes*

### UMEEN DANTZA ESKOLA / ESCUELA DE BAILES PARA NIÑOS Y NIÑAS

Umeen euskal dantzak zapatu goizetan

*Sábados a la mañana bailes tradicionales vascos para niños y niñas.*

# BERRIZKO AGENDA

## URRIAK 23

20:00 Antzerkia: *Gracias Grecia*, Kultura etxean.

## URRIAK 24

09:00 Berriz Oiz XI. Igoera. Izen-ematea: 3 euro.

## URRIAK 29

18:00 Umeentzako antzerkia: *Robot maitea*, Kultura etxean.

## URRIAK 30

20:00 Antzerkia: *Mortimer*, Kultura etxean, 20:00etan.

## AZAROAK 3

17:00 Guraso eskola: "Arrakasta handiko estrategiak ume txikiekin berba egiteko". 3-6 urteko umeen gurasoentzat. Learreta-Markina ikastetxean



## AZAROAK 5

### Kastina

*Izarren distira*, talentu lehiaketa. Kultura etxean, arratsaldean.

## AZAROAK 6

20:00 Antzerkia: *Cocidito madrileño*, Kultura etxean.

## AZAROAK 10

17:00 Guraso eskola: "Teknologia berriak". 6-12 urteko umeen gurasoentzat. Learreta-Markina ikastetxean

## AZAROAK 12

18:00 Umeentzako antzerkia: *Lolo: 215 eskakizuna*, Kultura etxean.

## AZAROAK 13

12:00 Aurkezpena: Toponimia erakusketa. Kultura etxean.

## AZAROAK 19

20:30

Antzerkia: *Akaziaren jokoa*, Kultura etxean.



## AZAROAK 20

20:00

Antzerkia: *Ondarroako Traman & Brix taldea*, Kultura etxean.

## AZAROAK 25

19:00

Kontzentrazioa: Emakumeenganako indarkeriarik ez!, Urtiaga plazan.

## AZAROAK 26

18:00 Umeentzako antzerkia: *Anbotoko Mari eta orrazi galdua*, Kultura etxean.

## AZAROAK 27

### Kantaldia

Benito Lertxundi (Lekua eta ordua zehazteko).

## AZAROAK 22-

## ABENDUAK 2

Euskal zinema Filmeak eta dokumentalak arratsaldero (egitarau zehatza argitaratuko da).

## ABENDUAK 3

20:00 Bertso saioa: Maddalen Lujanbio, Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Amets Arzallus. Gai-jartzaile: Maite Berriozabal; Kultura etxean.



## ABENDUAK 10

18:00 Umeentzako antzerkia: *Ali*, Kultura etxean.



## ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingi Eguna. Goizean auzoetatik ibilaldia eta arratsaldean udaletxetik Olakuetara kalejira eta osteko jaia.

## ERAKUSKETAK

Iragana margoak. Diana Anitua. Urriaren 31ra arte, Kultura etxean.

Berrizko toponimia planoak. Azaroaren 12tik 21era, Kultura etxean.

Arbasoen altxorra taila, Felix Larrañaga. Azaroaren 26tik abenduaren 12ra arte. Kultura etxean.

## LEHIAKETAK

Argazki lehiaketa. Gaia librea, Berrizko bizimoduarekin lortura gordez. Lanak aurkezteko azken eguna, abenduaren 10ean.

Olentzero eta Mari Domingiri eskutitzak. Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Abenduaren hasieran aurkeztu behar dira lanak.

Beldur barik lehiaketa.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako gaitzespen adierazpenak. Informazioa: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) edo udaletxeko berdintasun sailean.

ADIERAZ ZAITEZ!  
**BELDUR  
BARIK**  
¡EXPRESATE!



Berriz Elizateko  
Udala

## BERRIZKO TELEFONOAK

KULTUR ETXEA.....94 666 78 76 54  
OSAKIDETZA .....94 656 78 98 65  
UDALETXEA .....94 667 65 34 12  
POLIZIA LOKALA .....94 111 23 43 56